



Hari hauskorrari tiraka, ezagutzeko

Lizardi Saria irabazi du Idoia Garzes herritarraren azken lanak; 'Hari single bat' ipuin luzeak / 3

TXINTXARRI

Eztabaidarako bost gai

Katalunia eta barne-mugikortasuna izan dira urriko udalbatzarreko gai nagusiak / 2

Kataluniako lider politikoen askatasuna aldarrikatu dute, Gure Esku Dagok deitutako elkarretaratzean / 4

Mailari eusteko partida erabakigarriak jokatu dituzte asteburuan Intza elkarte pilotariak / 12

2 mó
progresibo, erreflexuen/
aurkako lenteekin / **229€**

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIOPTICAS
lehenaz zerbitzu optikoetan

www.multioplicasgipuzkoa.com



Asteon egin du udal korporazioak ikasturteko bigarren ohiko udalbatzarra. Hainbat gairi buruz eztabaidatu dute. TXINTXARRI

Gai nagusiak, Katalunia eta barne-mugikortasuna

Hainbat gai jorratu ditu udal korporazioak ohiko udalbatzarrean, ordubetez: taxien tarifak 2020. urterako, SAVIA fundazioaren mozio bat, larrialdi klimatikoa, Lasarte-Oriako mugikortasuna eta Katalunia. Azken bi horiei buruzkoak izan dira esku-hartze gehienak

Itziar Gonzalez Sarobe

Mamitsua izan da urriko ohiko udalbatzarra: bost gai jorratu dituzte korporazioko kideek. Lehenik eta behin, datorren urterako taxien hiri-tarifak onartu ditu udalbatzarrak, aho batez. Tania Rodriguez zinegotziak (Elkarrekin Lasarte-Oria Puede) ezin izan du saiora joan.

Mugikortasunari buruz aritu dira gero. EAJk eraman du gaia pleno aretora. "Urrats handiagoak" egiteko eskatu dio udalari Jon Antxordoki bozeramaileak, barne-mugikortasuna "hobea" izan dadin. Besteak beste, proposatu dio erdigunea ixteko proba pilotu bat martxan jartzeko, asteburuetan autoak bertatik igaro ez daitezela.

Agustin Valdiviaki (PSE-EE) erantzun dio "oso oinarritzakoa" dela mozio hori; aurka bozkatu du alderdi sozialistak. Berdinketa zegoenez, alkateak kalitateko bozka erabili du EAJren proposamena ez onartzeko. Sozialistek prestatutako mozio bat aurkeztu du segidan Valdiviak; instituzio

publikoei zenbait konpromiso hartzeko eskatzeaz gain, aipatu du mugikortasun plan bat egin behar duela Lasarte-Oriako Udalak. Horren alde bozkatu du EH Bilduk, "koherentziagatik", Jon Martinek azaldu bezala. "Jasotako puntu asko guk ekarri izan ditugu plenora; onak dira herritarrentzako". Dena dela, aipatu du "susmagarria" dela "sozialisten jarrera aldaketa". EAJk, aldiz, aurka bozkatu du. "Kalitateko botoa erabili du alkateak guk proposatutako neurri zehatz eta errazei ez ekiteko".

SAVIA fundazioak aurkeztutako mozio bat aztertu dute segidan. Elkarte horrek eskatu dio udalbatzarrari Etorkizuneko Belaunaldien Defendatzailea izeneko instituzioa sortzea. Bozkatu, eta onartu egin dute.

Kataluniako egoera hizpide

Mozio bat eraman du sortu berri den Kataluniarekiko Elkartasun Taldeak pleno aretora, Auzitegi Gorenak ezarri dizkien kartzela-

zigorrak zenbaterainokoak izango diren ezagutu berri duten buruzagiei elkartasuna adieraziz.

Alde bozkatu dute oposizioko alderdi guztiek, eta aurka PSE-EEK. Berdinketa. Alkateak kalitateko bozka erabili du beste behin, mozia ez onartzeko. Epaia "onartezina" dela adierazi du Martinek. EH Bilduk estelada bandera ateratu du mahai gainera, eta "elkartasun besarkada bat" bidali epaituei. "Ez dago eskubiderik". EAJk adierazi du ez zaiola ongi iruditzen "horrelako gai serio bat" kalitateko bozka bidez erabakitzea. PSE-EEK esan du hori dela jarraitu beharreko prozedura eta Auzitegi Gorenaren erabakia errespetatzen duela.

Larrialdi klimatikoari buruz hitz egin dute gero. Mozio bat sartu dute urgentziaz EH Bilduk eta Elkarrekin Lasarte-Oria Pudedek. Ez da aurrera ateratu. PSE-EEK eta EAJk mozio alternatibo bat aurkeztu dute; euren aldeko bozkekin -11, guztira- onartu dute proposamen hori.



Uistin kalean bi lurpeko zaborrontzi daude gaur-gaurkoz. TXINTXARRI

EH Bildu: "Zaborraren arazoari oinarritik heldu behar zaio"

Udalak abiatu duen parte-hartze prozesuari "gabeziak" ikusten dizkio alderdiak. "Azalekoa eta sinplea da"

Txintxarri

Lasarte-Oriako EH Bilduk salatu du "azalekoa eta sinplea" dela udalak martxan jarri duen parte-hartze prozesua: herritarrek erabaki behar dute lurpeko zaborrontziekin jarraitu nahi duten, edo ordezkatu, gainazalean jarrita. "Herriak hondakinen kudeaketarekin daukan arazo nagusia ez dira lurpeko zaborrontziak, birziklapen-tasa eskasa baizik". Donostia eta gero, Lasarte-Oriarena da birziklapen-tasa apalena; zaborraren %49 biltzen da gaika. Koalizio abertzaleak galdegin dio udalari

hondakinen kudeaketaren arazoari "oinarritik" heltzea, eta birziklapen-tasa handitzeko "neurri zuzentzaileak" hartzea. "Birziklatzen diren hondakinen ehuneko oso baxua da".

Arestian aipatutako lurpeko zaborrontzien parte-hartze prozesuari "gabeziak" ikusten dizkio Lasarte-Oriako EH Bilduk: "Herritarrei ez zaie nahikoa informazio helarazi; ez dute bileren gaineko oharrik jarri zenbait ataritan; eta ez da diagnostiko zehatzik burutu". Udalbatzarrerara ere eraman zuen gaia astelehen arratsaldean.



LASARTE-ORIAKO PENTSIONISTEN KOORDINAKUNDEA

Herriko pentsionistak, Madrilen

Asteazkenean Madrilen deitutako manifestazioan parte hartu dute Lasarte-Oriako 26 pentsionistak. Espainia osoko pentsionistekin bat egin dute Espainiako hiriburuan, eta Sol plazatik, Diputatuen Kongresu aurrerainoko ibilbidea egin dute. Mobilizazioaren bidez Espainiako jarduneko gobernuari pentsio duinak bermatzeko eskaera egin diete.

Hari singlea iruten, iragana eta oraina batzen

37. Lizardi Saria irabazi du Idoia Garzesen 'Hari single bat' ipuin luzeak. Nor garen jakiteko, nondik gatozen jakitea ezinbestekoa dela defendatu du idazleak. Esker oneko agertu da Zarauzko Udalarekin bere buruko ideiak argitaratzeko aukera emateagatik

Maddi Zaldua

Buruan beti ditu ideiak, "haziak", Idoia Garzes (Lasarte-Oria, 1973) herritarrak. Poltsikoan beti daramatza koaderno eta boligrafoa, eta batzuetan horretan bildutakoak argitaratzera animatzen da. Horrelaxe gertatu da idatzi duen 'Hari single bat' ipuin luzearekin. Ez du denbora luze behar izan buruko historia papereratzeko: "Behin ideia garbi edukita ez dut denbora askorik behar izaten idazteko". 37. Lizardi Saria, haur eta gazte literaturaren garaile izan da aurten: "Zorionez, ezustean hartu nuen irabazlearen berria".

Asteasuko amona Rufinari eskaini dio ipuina. Gerrako umezurtza da, bere aita gerran hil baitzuten, eta ez dute orduz geroztik bere berririk lortzerik izan. Hortik abiatzen da, hain zuzen, kontakizuna, baina hori besterik ez da pasarte erreal bakarra.

Arrako izeneko -Izabako Ama Birjinaren izena, Belagua haranean dagoen idazlearen mendi inguru gustukoa- neskato bat da kontakizuneko protagonista nagusia. Amaren baserrira joan da familiarekin, eta ganbarako kutxa batean, zurezko ardatz bat topatu du. Amak azaltzen dio haria iruteko ardatza dela



Idoia Garzes, 'Hari single bat' azken lana eskuartean duela. TXINTXARRI

eskuartean duena, belaunaldiz belaunaldi, eskuz eskuz erabili dutena.

Hortik abiatuta, galderak egiten hasten da Arrako, haria iruten. Baina hainbat ixiltasunekin egiten du topo, eta apurka, hariaren korapiloak askatuz, isiluneak bete eta etendako haria birsortzen du. Iragana eta oraina batzen ditu hari single baten bidez.

Kontakizunean barrena, Gerra Zibileko kontuen berri jasoko du irakurleak, isildutako eta isilarazitako gertakizunen berri, baina ez hori bakarrik. Feminismoaz ere jasoko du: "Nire amona Rufinari eskaintzen diot lana, baina

berarekin batera, baita gerra garaian beren seme-alaben bizitzak aurrera atera zituzten emakumeei ere". Horrekin batera, elementu mitologikoak ere agertzen dira.

Hamabost urtetik gorako edonork irakurri dezake ipuin luzea, baina argi azaldu du Garzesek: "Testuinguru baten berri jakin behar da". Ingurukoengandik jasotako iritziak "oso onak" izan dira, eta bera ere "oso pozik" dago egindako lanarekin. Leire Urbeltz ilustratzailearen irudiekin osatu dute kontakizuna, eta ilustratzaileak egindako lanak ipuina "edertzen" duen moduarekin pozarren dago Garzes; gustura lortutako emaitzarekin.



NEURE KABUZ

MIKEL YARZA ARTOLA

Demokra... zer?

Ia 100 urteko kartzela zigorrera heltzen da guztira Auzitegi Nazionalak Kataluniako lider independentistei ezarri dien sententzia. Ez gaitu sorpresaz harrapatu, izan ere, urteak joan eta urteak etorri, Euskal Herrian hamaika modutan ezagutu dugu Espainiako justiziaren joera politikoa.

Baina hauteskundeak berriz ere ate joka ditugun honetan, freska dezagun oroimena. Trifatxoak gobernatzaren arriskuaz ohartarazita jo zuten abtontziara ERC, EAJ eta EH Bilduk pasa den uztaileko inbestidura ahalegin hutsalean. Madrilen ahots propioa izan, erkidegoen tokian tokiko interesak defendatu eta birzentralizazio are bortitzagoa ekiditea, hauteskunde orokorren atarian sostengatu ohi den beste argudioetako bat. Baina, zein da funtsean euskal eta kataluniar alderdiek Espainiaren bihotzean jokatu beharreko papera? Merezi al du eskubide demokratikorik oinarritzkoena ukatzen digun horri gobernua erraztea? Zenbateraino leundu behar diegu bidea, gure bide propioa arantzaz bete besterik egiten ez dutenei?

Katalunia oso presente egongo da presidentetzarako hautagaien ahotan kanpaina honetan zehar, Altsasuk ere jarriko du hizpidea tarteka. Eta telebistako debateetan egingo dute gure errealitateak zenbat inporta dien ilustratzeko moduko Euskadi eta Nafarroaren inguruko aipamen bat edo beste. Eurentzat, noski, horiek biak bateraezin izango direlako beti. Akaso bada garaia ohar gaitezen, ezer gutxi dugula egiteko euren grabitate zentroa Madrilen dutenekin. Akaso bada garaia bide berriak urratzeko.



TXEMA VALLES

1964koen ikasle garaiak gogoan

Ikatzmendi jatetxean bildu ziren, iragan larunbatean, 1964. urtean jaio eta Landaberri ikastolan ibilitako ikasle ohiak. Lasarteoriarrek eta usurbildarrek osatzen dute taldea, izan ere, urte horietan, Usurbilgo Kalear auzoan zuen eraikina Landaberri. Giro onean igaro zuten eguna, ikasle garaietako anekdotak gogora ekarriz.

LARRE JATETXEA

20€ Asteburuko menua

21€ Menu begetarianoa

20€ Babarrun-jana

egin erreserba:

943.361012 - 679.930895

Larrekoetxe bidea, 10 LASARTE-ORIA

ISLANDIA (itsas bidaia)

NORVEGIAKO FIORDOAK (itsas bidaia)

ERRUSIA

ZETAREN BIDEA (Uzbekistan)

TALDE BIDAIAK Denboraldi aurrerapena

ESLOVENIA & ISTRIA

NOOAO BIDAIAK

T.: 943 373 613

info@nooao.eus

Hipodromo Etorb. 10, Lasarte-Oria

Berritio herrian!

MAUXA

Gizonezkoentzako arropa

Etxe eta oheko arropa

Or dutegia:

10:00-13:30 eta 16:30-20:00

GELTOKI KALEA, 21 BEHEA | LASARTE-ORIA



Gure Esku Dagok deituta elkarretaratzea egin zuten, astelehen arratsaldean, Okendo plazan. TXINTXARRI

Kataluniako politikari subiranistei babesa

Espainiako Auzitegi Gorenak Kataluniako buruzagi subiranistei ezarritako zigorrak gaitzetsi ditu Gure Esku Dagok, astelehen arratsaldean. Mobilizazio zaratatsua egin dute, Okendo plazan. Altsasuko gazteak ere gogoan izan dituzte ekitaldian

Txintxarri

Kataluniako buruzagi independentisten aurkako epaia jakin ostean, asko izan dira elkartasuna adierazi dutenak. Lasarteoriatarrek ere, epaia arbuizatzearekin batera, babesa adierazi diete zigortuei

Astelehen arratsaldean bat egin zuten lasarteoriatarrek, Okendo plazan, Kataluniari elkartasuna adierazteko. Gure Esku Dagok deituta, mobilizazio zaratatsua egin zuten.

Espainiako Auzitegi Gorenak 9 eta 13 urte arteko kartzela zigorrak ezarri dizkie 2017. urteko urriaren 1ean erreferenduma ahalbidetu zuten buruzagi sozial eta politikoki subiranistei. Hori "demokraziaren aurkako eraso larria" dela irmo salatu dute.

Epaia salatzearekin batera, prozesu judiziala ere injustua izan dela azpimarratu dute: "Arbitrariotasunez, funtsik gabeko akusazioetan oinarrituta, eta behin-behineko espetzealdiarekin presoen eskubideak urratu dituzte".

Horregatik, epaiketa politikoaren amaiera justua "absolutzioa" litzatekeela ozen aldarrikatu dute.

Erreferenduma kriminalizatu

Erreferenduma ez da delitua, askatasuna lelopean bildu dira herritar ugari, Okendon. Erreferenduma herri baten etorkizuna modu libre eta demokratiko batean erabaki ahal izateko "tresna demokratikoa" dela nabarmendu dute, eta Euskal Herrian tresna horren erabilera egin asmo dutela gogorarazi dute: "Gure etorkizuna erreferendum bidez erabaki nahi dugu, eta hori lortzeko bidean ez dugu atzera egingo".

EH Bildu, EAJ eta Elkarrekin Lasarte-Oria Pudek adierazpen instituzional bat adostu dute. Sei puntu nabarmendu dituzte: demokraziaren adierazpen baketsua, indibiduala zein kolektiboa gauzatzea ez dela delitua; Kataluniako buruzagi politikoki eta sozialei ezarritako zigorrak "justifikaezinak" direla; Proce-

aren aurkako auziak Zuzenbide Estatuaren itxuragebetzea dakarrela eta Espainiako demokraziaren homologazioa ezbaian jartzen duela; herrien borondatea modu demokratikoan eta baketsuan erabakitzea eragozten duela Espainiaren erantzun bortitzak; eta elkartasun osoa azaltzen dietela kartzelan dauden preso politiko zein erbesteratuei.

Altsasuko gazteak ere gogoan

Kataluniako zigor epaiaren aurkako mobilizazioan ere ez dituzte ahaztu Altsasuko gazteak, eta horien askatasuna ere eskatu dute. Errepresioaren eta 155. artikulua ezartzearen mehatxuen bidez, "beldurtuta, etsita eta burujabetza asmoak lortzeko itxaropenik gabe" nahi dituztela azaldu zuten, baina aurrera egiteko "ilusioz eta determinazioarekin" erabakitze eskubideari bidea irekiko dietela argi jakinarazi zuten.

Demokraziaren larrialdiari erantzun bateratua emateko, bihar, manifestazioa, 17:30ean, Donostian.



TXINTXARRI

Ernai Lasarte-Oria aurkeztu dute

Ernai Lasarte-Oriako kideek aurkezpen irekia egin dute Mirentxun. Hainbat gazte, EH Bilduko udal ordezkari, eta bestelako herritar bertaratu dira saio irekira.

Biribila osatuz eserita, kideek hartu dute lehenik hitza. Osatu den taldearen sorburuaren berri eman dute. Ikasle mugimenduak beraien ikastetxean zuen presentzia eskasari erantzuteko, eskualdeko Ernaiko kideekin jarri ziren harremanetan eta lanketa bat egin zuten Batxilergoko ikasleen artean. Besteak beste, erraustegiaren kontrako manifestazioa egin zuten iazko ikasturtean, arrakastatsua izan zena. Hura izan zen lehen urratsa, gero herrira bideratzea erabaki zuten. Hainbat bilera egin dituzte herriko gazte mugimendua aztertzeko eta aurtengo ikasturterako urratsak zehaztu dituzte. Bukatzean, elkarretaratzea egin dute Altsasuko gazteei elkartasuna adierazteko.

Aurkezpenaren ondoren, bertaratutakoak bosteko taldeetan jarri dituzte elkarrekin hausnartzeko hiru galderen inguruan: *Nola ikusten duzu gazte mugimendua gaur egun?*, *Zer hutsune identifikatzen dituzu?* eta *Nola irudikatzen duzu etorkizuna?* 15-20 minutu izan dituzte talde eztabaidarako, eta ondoren, komunean jarri dituzte bildutako iritziak.



TXINTXARRI

Pilar Garridorekin hizketan

Hauteskunde orokorrak izango dira berriro azaroaren 10ean, eta hari begira dago jada Elkarrekin Lasarte-Oria Pude. Ostiralean, urriaren 11n, saio irekia egin zuten Manuel Lekuona Kultur Etxeko hitzaldi geletako batean. Bertan zeuden, besteak beste, David Ares zinegotzia, Pilar Garrido Unidas Podemoseko diputatua edota Donostialdeako batzarkide David Oliden.

Hasteko, Espainiako gobernu osatzeko PSOE eta Unidas Podemosek udan egindako bileren nondik norakoan berri eman zuten Garridok, akordioa posible egin ez duten arrazoiak azalduta. Parte hartu zuten dozena bat herritarren galderei ere erantzun zien diputatuak. Ondoren, aurrera eramango duten kanpaina izan zuten hizpide.

Egindakoa eraman, eta ideia berriak ekarri

Galizian egon da Laura Cespedes herritarra berriki: Nekazal Ekonomia eta Kultura nazioarteko foroan parte hartu du, Kataluniako Coworking Elkarteak gonbidatuta. Mota horretako guneen Euskal Herriko ordezkari gisa joan da lasarteoriatarra bertara

Iñigo Gonzalez Sarobe

"Esperientzia bikaina" izan da Nekazal Ekonomia eta Kultura nazioarteko foroan parte hartzea Laura Cespedes herritararentzat. Santiagon (Galizia) egon da berriki, hiru egunez. "Foroan partekatu ditugun esperientzia guztiak oso interesgarriak eta onak izan dira; desberdinak, eta bereziak".

Cespedesek ez zuen izenik eman hara joateko; Kataluniako Coworking Elkarteak jarri zen berarekin harremanetan. Ongi ezagutzen ditu lasarteoriatarrek mota horretako guneak: duela bi urte ireki zuen Coworking Lasarte-Oria. "Etxetik lan egiten neramatzan bost urte, eta atera egin nahi nuen; bulegoa egiten hasi nintzenez, ikusi nuen handiegia zela niretzako, eta erabaki nuen lana egiteko espazio hori partekatzea".

Hori da *coworking* kontzeptuaren funtsa: elkarlana sustatzea eta lankideen arteko harremanak indartzea. Cespedes kontsultorea da, eta kalitatearen alorrean egiten du lan, enpresetan. Tailerrak ere eskaintzen ditu Basque Culinary Centerren. Lasarte-Oriako gunean beste ogibide batzuetan lan egiten duten pertsonekin –diseinatzaile interiorista eta ziurtagiri energetikoen enpresa batekin,



Autobus urdin horretan joan da Laura Cespedes foroko hitzaldietara. L. CESPEDES

besteak beste– partekatzen ditu instalazioak eta ideiak.

Euskal Herriko ordezkaria

Feira arloan hitz egin zuen Cespedesek, Euskal Herriko ordezkari gisa. Kataluniatik eta Portugaldik joandakoekin partekatu zuen mahaiak. Berak sortutako proiektuaren berri eman zuen hainbat ikusentzuleren aurrean. "Interesgarria izan zen oso: *coworking* asko publikoak dira; nirea, berriki, pribatua. Aberasgarria izan zen eredu desberdinen berri izatea".

Lasarte-Orian egindakoa hara eraman, eta ideia berriak ekarri: Brioneseko garapen agentzia, adibidez, sukalde kolaboratzaile bat egiten ari da, parte-hartzaile bakoitzak bertan presta ditzan bere produktuak.

Cespedesek azpimarratu duenez, eskualde mailan lan egiten duten *coworking* enpresak biltzen ari dira –Hernani, Usurbil eta Andoain eta Lasarte-Oriakoak–, ikusteko zer daukaten komunean eta nola has daitezkeen elkarrekin lanean. Sare hori Gipuzkoara zabaltzea nahiko luke gero.



Aterpeko merkatariak sentsibilizazio kanpainaren aurkezpenean. TXINTXARRI

Bularreko minbizia dutenekin, elkartasun erakuslehoak

Aterpeko merkatariak arrosez koloreztatuko dituzte saltokiak, bularreko minbiziaren aurkako egunean

Txintxarri

Urriaren 19an, larunbatean, Bularreko Minbiziaren Aurkako Eguna da, mundu mailan. Gaitza dutenei babesa adierazteko, herriko merkatariak globo eta zapi arrosekin beteko dituzte erakuslehoak.

Minbiziaren aurkako elkartearen egitasmoarekin bat egin dute Lasarte-Oriako Aterpea Merkatarien Elkarteak hainbat establezimenduk. Berrogeita hamar baino gehiago izango dira parte hartuko dutenak. Dendak koloreztatzearekin batera, larunbatean erosketak egitera gerturatzen diren bezeroen artean, eskumuturrekoak eta xingolak ere banatuko dituzte.

Horrela, gaixotasuna duten ingurukoei, elkartasuna

adierazteko bat egin dute sentsibilizazio kanpainarekin, eta osasun arloko arduradunei eskaera garbi bat eginez amaitu zuten astelehen goizeko aurkezpen ekitaldia: gaitza aztertzen jarrai dezatela.

2018. urtean diagnostikatu ziren minbizia kasuen artean, bularrekoa izan da bigarrena. 539 kasu berri hauteman zituzten pasa den urtean. Azterketak egitearen garrantziaz jabetu nahi dituzte herritarrek.

Doako laguntza

Minbiziaren aurkako elkarteak gogorarazi du minbizia dutenentzat, edota horien ingurukoentzat doako laguntza eskaintzen dutela. "Psikologo eta onkologo taldearen arreta jaso dezakete".

Urteko bazkidetza

54€

Elikatu hizkuntza eta kultura!

Ttakuneko bazkide izanda, herriko euskararen eta kulturaren sustapenean lagunduko duzu

- **Haur eta gazteen euskarazko aisialdia**
Amarau klubak
Gazte klubak
Kuadrillategi
Faktoria
Txokoak
Udako kanpaldiak
- **Helduen euskarazko aisialdia**
Plaza Dantza eta Xumela
Solaskide programa
Titare joskintza taldea

- **Kultur ekintzak**
Euskal Inauteriak
Udaberriko bertso saioka
Azkorteke erromeria
Sorgin Dantza
Santa Ana parodia
Euskal Jaia
Euskararen Maratoia
Euskaraldia
San Tomas azoka
Olentzerori ongietorria
- **Txintxarri aldizkaria**
- **Ikastaroak**

Zein abantaila izango dituzu?

- Lehentasuna zenbait izen ematan
- Deskontuak
- Zozketak
- "Ttakunberri" buletin digitala
- Ttakuneneako gune orokorra erabiltzeko aukera
- Batzar orokorreko erabakietan parte hartzeko eta proposamenak luzatzeko aukera

Ttakun

Kultur Elkartea

Informazioa eta bazkidetzak: ttakun@ttakun.eus • Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria • 943 37 14 48

Hegoaldeko 'arteak' Okendon

Andaluzia Lasarte-Oriara ekarri du hamazazpigarrenez Semblante Andaluz elkarteak. Antolatutako Aste Kulturalak erkidego horretako ikur diren osagaiekin bete du Okendo plazan jarritako karpa: flamenkoa, sevillanak, abesbatza rociozalea, rebujittoa. Eta gehiago

Maitane Aldanondo

"Olé"-ak, txaloak, zapateauak edota flamenko doinua barrabarra entzun da asteburuan Okendo plaza inguruan. Semblante Andaluz elkarteak bere Aste Kulturala aurrera eramateko jarritako karpatik horiek eta askoz gehiago irten ziren ostiral arratsaldetik igande iluntzera bitartean. Hegoaldeko "arteak" bete, eta zer ikusi, dantzatu zein dastatu ugari izan zen bertan. Rocioko Amabirjina tarteko-edo, firin-faran ibili zen hego-haizeak erkidego hartakoagoa zirudien giro ezin hobea ekarri zuen, festara batzea erraztuz.

Ohitura denez, udal agintariei luntx bat eskainita eta elkarrekin topa eginda ekin zioten jarduera sortari. Patata tortilla, urdaiazpikoa, rebujittoa... politikariak eta elkarteak kideak hizketaldi lasaian aritu ziren mokadu artean. Ondoren, Las Gitanillas del Alba eta Duende dantza taldeen erakustaldia izan zen. Oholtza aurrean eserita zeuden haurren arreta eskuratu zuten, baita estaldurara sartzen joan zirena ere. Talde bakoitza bakarrik aritu zen lehenik, eta

jarraian, elkarrekin dantzatu zituzten pare bat pieza. Biharamunean berriro aritzekoak ziren Gitanillas del Albakoak, baina bertan behera utzi zuten ikuskizuna; ez, ordea, igandekoa. Agertokia hustu zenean, pintxopotean indarrak hartu zituzten eguna itxi zuen dantzaldirako.

Dantza eta dantza

Jaia izanagatik edo, larunbata egun lasaia izan zen herrian. Salbuespenetako bat Okendo plaza izan zen. Goizean, aurpegia margotu eta jolasean aritu ziren haurrak; helduek, berriz, pote lehiaketan parte hartu zuten. Bitartean, herri bazkarirako paella goxoa prestatzen aritu ziren Semblante kideak.

Gosea berdindu eta tarte batez atsedean hartu ondoren, musikaren garaia heldu zen. FARAk antolatuta, La Calle del Remolinok kontzertua eman zuen. Abeslariaren esanetan, "17:30 flamenkoan" hasi zuten kantaldia, hau da, zehaztutako ordua baino 20 minutu geroago. Probaketa nahi baino gehiago luzatu zitzaizen, soinu arazoak ezin konponduta. Lortu zutenean,

oholtzatik jaitsi eta behar bezala aurkeztu zuten Bizkaia aldetik etorritako hirukotea. Zorionez, entseguan abestutakoak lasarteoriatarak erakarri zituen eta emanaldiak aurrera egin ahala, karpa jendez betetzen joan zen. Txalo, kantu eta dantza artean pasatu zuten ordu eta erdiko saioa. Batzuk, altxa, eta sevillanak dantzatzera ere animatu ziren. Beste batzuek, arratsaldeko beroa freskatzeko barrara joatea nahiago izan zuten.

Berandu hasi eta berandu bukatu. Semblante Andaluzeko Zambra taldeko laukoteak zain egon behar izan zuen bere emanaldia egin ahal izateko. Ez zuten gogo izpirik galdu itxaronaldian: Ikusleen miresmena piztu zuten. Begira zituzten haurretako batzuk pausoak errepikatzen ahalegindu ziren, eta zenbait helduk ezin izan zuten dantzaldi herrikoia arte gelditu egin.

Igandek osagaiak errepikatu zituen, berezitasun bakarrarekin: Semblante Rocierok girotu zuen arratsaldea. Gainerakoan, nekatu arte oinak eragiteko aukera zabala izan zen.



Udal agintarien toparekin hasi zituzten Aste Kulturalako emanaldiak. TXINTXARRI



Zambra laukoteak haur nahiz helduen miresmena piztu zuen. TXINTXARRI



La Calle del Remolino taldeak girotu zuen larunbat arratsaldea. TXINTXARRI



Gitanillas del Alba taldeko dantzariak lanpetuta ibili dira asteburuan. TXINTXARRI



Sevillanak dantzatzeko grina eta trebetasuna erakutsi zuten ikusleetako askok musikak aukera eman zuen guztietan. TXINTXARRI



PLAZAN BAZAN



itzala

Zein da mamuaren itzal zuzena?



Izua

Osa ezazu sudokua, IZUA hitzak dituen hizkiekin.

	I		Z
		I	
	U		
A		U	

Bi irudi hauen artean hamahiru alde daude. Ikusten al dituzu?

Zu bai Hamalau!



Engainariak

Zati hauetariko lau ondoko iruditik hartuta daude eta gainerako bostak engainariak dira, hau da, oso antzekoak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.



Euskaraz hezi eta hazi

Haurrak ahalik eta euskal hiztun osatuenak egitea du helburu 'GurasoLeku' egitasmoak. Familiaren, eskolaren eta herriaren baliabideak eta gogoak konektatzen ditu



Jon Antxordoki
Euskara Batzordeko lehendakaria

"Familia, eskola eta herriaren baliabideak eta gogoak batu ditugu"

Lasarte-Oriako Euskara Batzordeko lehendakari Jon Antxordokik *GurasoLeku* egitasmoan parte hartzera animatzen ditu herriko gurasoak. "Espazioak eta tresnak eskaintzen dizkiegu, ikastetxeekin elkarlanean, seme-alabekin euskaraz hitz egin dezaten". 2015-2016 ikasturtean jarri zuen martxan proiektua Euskara Batzordeak, hainbat eragilerekin batera.

Antxordokik nabarmendu du hezkuntza "makulu sendoa" dela hizkuntza transmititzeko, baina inguruak ere "garrantzia handia" daukela haurrak ahalik eta euskal hiztun osoenak bihur daitezten. "Familia, eskola eta herria batzen ditu *GurasoLeku*-k; konektatu egiten ditu hiru alor horien gogoak eta baliabideak. Parte hartzeko, ikastetxeetan banatzen den eskuorria bete behar da, besterik gabe".

"Herriko guraso guztiek daukate lekua 'GurasoLeku' egitasmoan"

Ttakun Kultur Elkartea da *GurasoLeku* egitasmoan buru-belarri lanean ari den eragileetako bat. "Herriko guraso guztiek daukate lekua proiektuan", nabarmendu du Mari Karmen Ormazabal lehendakariak.

"Hiru atal nagusi ditu programak", zehaztu du. "*GurasoLagu*n izena du batek: euskaraz aritzeko gaitasuna duen pertsona bat ohitura ez duen batekin elkartzean datza, azken horrek hitz egiteko mekanismoak har ditzan".

GurasoTegi da beste ataletako bat. "Gurasoentzako euskara eskolak eskaintzen dituzte, komunikatzeko oinarriko gaitasunak lantzeko". Eta, azkenik, *GurasoLandia*: "Beste bi programetako gurasoak elkartzen dira, aisiako jarduerak egiteko hurrekin. Helburuak dira tarte atsegin bat igarotzea familia artean, eta euskaraz aritzen gozatzea".



Mari Karmen Ormazabal
Ttakun KEko lehendakaria



Lasarte-Oriako Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeak eta guraso elkarteak dira ekimen honetako sustatzaileetako batzuk. Horregatik, ikastetxeek gurasoak animatzen dituzte ekimen honetan parte hartzera.



Landaberriko irakasle ugari parte hartzen dute *GurasoLeku* egitasmoan. Iaztik hona badaude aurpegi berri batzuk, baina haien asmoak ez dira aldatu: "Eskola da euskararen bilgunea". Uste dute programa "modu oso ona" dela herrian euskara bultzatzeko, eta "aberasgarria" dela esperientzia, gurasoak jartzen dituelako "hizkuntza transmisioaren erdian".

Dena dela, irakasleek nabarmendu dute gurasoek ez dutela bakarrik egingo bidaia hori: "Haien jarrera oso garrantzitsua da, baina guztien arteko elkarlana da giltzarria".



GurasoLeku programan parte hartzen duten Sasoeta-Zumaburuko irakasleek argi dute: "Gurasoengana heltzeko oso baliagarriak izan gaitzke irakasleok". Zeregin horretan laguntzen die egitasmoak; dinamika "aproposak" dituela azpimarratu dute. "Gertutasuna lortzen da, jolasak egiten dira, eta askoz ere erakargarriagoa da denentzat".

Haurren euskalduntzea "arrakastatsua" izate aldera, oso garrantzitsua da hezkuntza, baina baita inguru ere. Biak lotzen ditu *GurasoLeku*-k. "Horregatik da interesgarria egitasmo hori".



Guraso leku



GurasoLagun

Ikastetxean izan zuen Araceli Holgado *GurasoLagun* ekimenaren berri. Izena ematea erabaki zuen, lanarekin-eta ongi uzta zezakeelako. "Esperientzia polita" izan dela dio: "Euskara betidanik gustatu izan zait; txikitan ikasi nuen, baina ohitura galdu gero. Lotsa izan ohi da nire oztopo nagusia; balio izan dit kate horiek askatzeko. Nire haurrekin dena euskaraz egiten dut etxean orain".

GurasoLagun egitasmoan *bidelari*ek eta *bidelagun*ek parte hartzen dute: euskaraz aritzeko ohiturarik ez duten gurasoek; eta gaitasun hori eskuratu nahi dutenei ekarpena egin nahi dietenek. Iaz parte hartu zuen Aracelik. "Ikastetxean izan nuen proiektuaren berri". Astearte arratsaldeetan geratzen zen Maitanerekin: kafe baten bueltan edozein gairi buruz hitz egiten zuten. "Harreman oso ona egin

genuen biok; kaletik ikusten dudanean euskaraz hitz egiten dugu beti".



Araceli Holgado



Alberto Cuadrado

"Oso gomendagarria" da *GurasoTegi* egitasmoa, Alberto Cuadrado herritarraren hitzetan. "Asko" ikasi zuen iaz. "Aurten ere jarraitzeko asmoa daukat; ea ordutegiak koadratzea lortzen

dudan. Oso ongi pasatzen nuen klaseetan".


Eskolan ikasi zuen euskaraz Albertok, haurra zenean. Orduan zeuzkan maila eta jariora berreskuratzeko "primeran" etorri zaio *GurasoTegin* parte-hartzea. "Nire alabek 3 eta 7 urte dituzte; hazten ari dira, eta ahal dudan gehienean lagundu nahi diet, euskaraz.

Egitasmo horretan jasotako klaseen astean, egin dezaket hori".

Haurrak ikastetxean egon bitartean, gurasoei eskolak eskaintzean datza egitasmoak, abendutik ekainera. Bi ordukoak dira, eta ikastetxeetan bertan ematen dira.



GurasoTegi



GurasoLandia

"*GurasoLandia* egitasmoari esker, txipa aldatu dugu". Iaz aritu ziren Maria Monroy eta Carlos Blanco, "oso gustura". Errepikatu egingo dute aurten. "Abestiak, jolasak, masajeak, salto gelara joan ginen eguna... Primeran pasa genuen hirurok".

Ikasleak zirela, euskara maila txukuna zeukaten biek. Urteen poderioz, hitz egiteko gaitasuna

ezin izan zuten mantendu. Iazko esperientziak –*GurasoTegi*-n ere aritu ziren– lagundu die hori berreskuratzeko, korapiloa askatzen: "Euskaraz hitz egiten dugu Noa alabarekin gaudenean, lankideekin, lagunekin... baldin eta beraiek ere euskaraz badakite". Biek aitortu dute "harrituta" geratu direla ingurukoak, euskaraz hitz egiten

entzun dituztenean. "Zeinen ongi egiten duzuen!", esaten digute.

Lagundu izan die euskaraz aritzerakoan konfiantza eta jariora berreskuratzeko, eta baita guraso, begirale eta irakasleekin harreman onak egiteko. "Parkera joaten gara, eta topo egiten dugu iazko guraso batzuekin, eta baita beste batzuekin ere. Euskaraz hitz egiten dugu guztiok".



Maria Monroy eta Carlos Blanco

Hauek dira elkarrekin burutuko ditugun ekintzak:

	HH2	HH3	HH4	HH5
Abenduan:	Sehaska kantak	Istoriak asmatu	Kirola	Natura-jolasak
Urtarrilean:	Ipuinak, maitasuna	Musika egin	Antzerkia	Birziklapena
Otsailean:	Masajea	Mozorroak sortu	Dantza	Sukaldaritza
Martxoan:	Ipuinak, koloreak	Artelanak egin	Plastika	Natura-artelana
Apirilean:	Ipuinak, animaliak	Jostailuak asmatu	Gorputz adierazpena	Biodantza
Azken saioa:	Ekintza berezia	Ekintza berezia	Ekintza berezia	Ekintza berezia

Pertsona eta judoka bezala hazten, LOKEEn

Hilabete daramate LOKE kirol elkarteko judoek tatamian, sasoi hasierako txapelketak prestatzen. Iruñean estreinatu dira seniorrak, Espainiako Superkopan; asteburu honetan Gipuzkoako Txapelketan ariko dira. Urtea bukatu bitartean, lehiaketa asko dituzte aurretik

Iñigo Gonzalez Sarobe

"Gure helburu nagusia da judo egitera etortzen diren kirolariei pertsona bezala formatzen laguntzea; gero, emaitzak etortzen badira, primeran, baina gure lehenasuna ez da hori". Gorka Aristegi entrenatzailearen hitzak dira. LOKE kirol elkarteko judo saila kudeatzen du, kemenez eta ilusioz. "Oso gustura" dago judokak egiten ari diren lanarekin. Iritsi dira denboraldi hasierako lehenengo txapelketak; gogor ari dira entrenatzen denak.

Iruñean estreinatu dira senior kategoriakoak: Espainiako Superkopa jokatu dute. Fermin Baldak, Josu Olmosek eta Haritz Urdangarinek parte hartu zuten txapelketa horretan, joan den asteko larunbatean. Domina eskuratzetik gertu geratu zen Balda; final-erdietan kanporatu zuten. Olmosek bi borrokaldi irabazi zituen eta zazpigarren sailkatu zen; Urdangarinek, aldiz, ezin izan zuen aurreneko fasea



Astean hirutan entrenatzen dute LOKEko judoek, kiroldegiko tatamian. TXINTXARRI

gainditu. "Kontuan hartuta duela hilabete hasi gabela entrenatzen, emaitzak onak dira", azpimarratu du Aristegik.

Ordezkaritza zabalagoa eramango du LOKEk asteburu honetan Hernanira, Gipuzkoako Txapelketara: Asier Sagasti,

Fermin Balda, Josu Olmos, Eneko Eizagirre, Haritz Urdangarin eta Almi Campos. Arratsaldeko hiruetatik aurrera konpetituko dute guztiek. Hurrengo egunean, igandean, Salamancan ariko da Unai Guisado infantila. Datozen asteetan ere gorritz markatuta

dute egutegia judoek. Seniorrek Euskadiko Txapelketa jokatu dute Eibarren. Azaroaren 9an, aldiz, Gijonera (Asturias) joango dira juniorrak, Espainiako Kopan parte hartuz. Astebete beranduago, azaroaren 16an eta 17an, infantilek eta kadeteek txapelketa jokatu dute Amurrion (Araba). Hitzordu garrantzitsua edukiko dute egun horietan seniorrek; ipar sektorea jokatu dute Euskadiko Txapelketan txartela lortzen dutenek. Sektorean ongi arituz gero, Espainiako Txapelketara sailkatuko dira. Azaroaren 30an jokatu da, Madrilan.

Gero eta gehiago tatamian

Entrenamenduen martxarekin bakarrik ez, aurten apuntatu diren gaztetxo kopuruarekin ere pozarren dago Gorka Aristegi entrenatzailea. "Hogeit bat neska-mutilek izena eman dute, iaz baino gehiagok". Prestatzaileak dio goranzko joera hori sumatzen ari dela Gipuzkoa mailan ere, eta gero eta neska gehiago animatzen direla kirol horretan murgiltzera. Gaztetxoek astean bitan aritzen dira: astelehenetan eta ostiraletan. Zaharragoak

direnek, berriz, asteazketan ere entrenatzen dute. "Tatamian ez dira askoz judoka gehiago kabitzen, baina judoan aritzeko gogoia daukan edozein ongi etorria izango da: konpetitzera, gerriko beltza lortzera edo ongi pasatzera etorri", nabarmendu du Aristegik. Herenegungo lantzaia gerturatu zen TXINTXARRI kiroldegira, judoekin egon eta talde argazkia ateratzera. Egundorretan ez dira kirolari guztiak joaten, batzuek kanpoan ikasten dutelako: unibertsitateko graduak, graduondokoak, eta abar. Ostiraletan elkartzeko dira gainontzeko kideekin. "Horrek betetzen nau gehien: ikustea nola ateratzen dituzten aurrera ikasketak nire ikasleek, judoarekin uztartuz", dio entrenatzaileak.



SENIOR KATEGORIAKO JUDOKEK GIPUZKOAKO TXAPELKETA JOKATUKO DUTE ASTEBURUAN

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

IBERDROLA LIGA

UD Granadilla - Real Sociedad

Larunbata. 18:30. La Palmera, Tenerife.

1. NAZIONALA

Osasuna B - Añorga KKE

Larunbata. 12:00. Taxoare, Iruñean.

OHOREZKO ERREGIONALA

Ostadar SKT - Añorga KKE

Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean.

ERREGIONALEN GORENGOA

Dunboa Eguzki CD - Ostadar SKT

Larunbata. 19:00. San Jose Obrero, Iruñean.

JUBENILEN 1. MAILA

Ostadar SKT - Ordizia KE

Larunbata. 17:15. Michelin kirol gunean.

Ordizia KE - Ostadar SKT

Larunbata. 16:00. Altamira, Ordizian.

KADETEEN OHOREZKO MAILA

Astigarragako Mundarro - Ostadar SKT

Larunbata. 10:00. Zubietan.

KADETEEN 1. MAILA

Real Sociedad - Ostadar SKT

Larunbata. 10:00. Zubietan.

Ostadar SKT - Euskalduna SD

Igandea. 11:15. Michelin kirol gunean.

INFANTILEN OHOREZKO MAILA

Urnieta KE - Ostadar SKT

Larunbata. 11:30. Urnietan.

INFANTILEN 1. MAILA

Ostadar SKT B - Ostadar SKT A

Larunbata. 12:00. Michelin kirol gunean.

Texas Lasartearra - Internacional CD

Igandea. 09:45. Michelin kirol gunean.

ARETO FUTBOLA

SENIORRAK, 1. MAILA

Eguzki Aldaz H.K. - Antiguoko KE

Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kir.

SENIOR 2. MAILA

Donipari CD - Eguzki ISU Leihoak

Ostirala. 21:30. Pasai Donibane kir., Pasaiain.

SENIOR EMAKUMEAK

Eguzki Garoa - Sanpedrotarra FE

Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kiroldegian.

JUBENILAK

Antigua Luberrri - Eguzki ZKN

Larunbata. 11:30. Egia kir., Donostian.

Eguzki Balerdi Harategia - Herrikide

Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kiroldegian.

SASKIBALOIA

SENIOR PROBINTZIALA, 1. MAILA

Ostadar SKT - AZ Casa de la Rioja

Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kir.

SENIOR PROBINTZIALA, 3. MAILA

Ostadar SKT - Alde Zaharra

Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kir.

JUNIOR ERRENDIMENDUA

Eskoriatza KE - Ostadar SKT

Larunbata. 16:00. Eskoriatzako kiroldegian.

KADETE ERRENDIMENDUA

Ostadar SKT - BKL Esparru

Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kir.

INFANTIL TXIKIAK

Zarautz ZKE - Ostadar SKT

Igandea. 09:30. La Salle, Zarautzen.

PILOTA

GIPUZKOAKO TXAPELKETA, 1. MAILA

Orio - Intza

Ostirala. 19:15. Udalekoa Orion.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA, 2. MAILA

Intza - EPLE

Larunbata. 12:15. Michelingo pilotalekuan.

ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA

Babyauto Zarautz - Belenos RC

Larunbata. 16:30. Asti, Zarautzen.

EUSKAL LIGA

Babyauto ZRT Beltzak - Gaztedi RT

Larunbata. 18:15. Asti, Zarautzen.

18 URTEZ AZPIKOAK

Babyauto ZRT Beltzak - La Rioja

Larunbata. 13:30. Asti, Zarautzen.

16 URTEZ AZPIKOAK

Mutriku/Zarautz/Beltzak - La Rioja

Larunbata. 14:15. San Miguel, Mutriku.

14 URTEZ AZPIKOAK

'Arrasateko Sevena' jardunaldian

parte hartuko dute Babyauto ZRT

Beltzak taldeko jokalariek gazteek.

Igandea. 10:30. Mojategi, Arrasaten.

LASTERKETAK

15 KM DONOSTIA

Herriko zenbait lasterkarik parte

hartuko dute Donostiako Klasikoan.

5, 10 edo 15 kilometro egingo

dituzte. Igandea. Goizean zehar. Donostian.

JUDO

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

LOKEko sei judoka seniorrek jokatu

dute Gipuzkoako Txapelketa.

Larunbata. 15:00. Hernanin.

Urriarekin batera lasterketa garaia iritsi da

Hiru Hondartzetako krosetako 30. urteurrenean 2.600 bat parte hartzaile izan ziren eta 75 lasarteoriarrek amaitu zuten proba. Raul Gomez Margallo laugarren izan zen. Bestalde, Gema Tejerok Urnietan jokatu zen Asier Niebla oroimenezkoa irabazi zuen

Txintxarri

Lasterketa herrikoien garaian sartu dira buru belarri korrikalariak. Donostiako Hiru Hondartzetako krosa, 15 kilometrotako Klasika, Lasarte-Oria Bai! krosa eta Behobia-Donostia. Kilometro pila metatuko dituzte hanketan herriko korrikalariak aste hauetan, lasterketa bat edo beste prestatzen.

Urriaren 13an, igandean, Donostiako Hiru Hondartzetako krosetako 30. urteurrena ospatu zen. 3.000 bat korrikalari izan ziren irteera puntuan eta 75 herritarrek helmuga zeharkatu zuten. Horieta bi, hamar lehenen artean sailkatu ziren. Raul Gomez Margallok 32:16 behar izan zituen 10 kilometrotako ibilbidea egiteko eta laugarren postuan helmugaratu zen; beterano mailan, berriz, bigarren izan zen. Gorka Gil, berriz, hamargarren izan zen: 33:20.

Urnietan, lasterketa berezia izan zen urriaren 12an, Asier Nieblaren oroimenezkoa. Eraso sexista baten ostean, Asier Niebla hil zenetik urte bat bete da, eta bere lagunek haren omenezko lasterketa eta martxa antolatu zuten urriaren 12an. Lasterketan, Gema Tejero herritarra izan zen irabazle.

Martuteneko El Pilar lasterketan ere herritarrek ere



Raul Gomez Margallo Hiru Hondartzetako krosetako lehen kilometroan. J. ZATARAIN

arte hartu zuten. Azkarrena J. Manuel Peña izan zen.

Lasterketetara buelta

Bestalde, igande honetan, 15 kilometroko klasikoa lehiatuko da Donostian.

Hainbat herritarrek parte hartuko dute lasterketa honek aurkezten dituen hiru modulotan: 15 kilometro, 10 km. (distantzia berria) eta 5 km.

Herritarrez gain, Ostadar SKTko Atletismo saileko buru eta Gipuzkoako Atletismo Federazioko lehendakari den Amaia Andresek ere egingo du 10 kilometrotako proba berria.

1996. urtean utzi zion Amaiak lehiaketa ofizialetan parte hartzeari. Geroztik, lasterketa herrikoien batean lehiatu du. "Baina, beti ordulariari begira nengoan, ondo pasa gabe".

Oraingoan, beste helburu bat du, "famiarekin disfrutatzea", eta Miniestadioko helmuga zeharkatzeko une magiko hori bizitzea.

Lehiaketara bueltatzeko proba aproposa dela uste du Andresek: "Tradizio handiko proba honetan parte hartu nahi dut, eta nire ustez, distantzia berri hau aproposa da niretzat eta emakume askorentzat".



TXINTXARRI

Egindako lanaren aitortza

Ostadar Inklusio taldeak ONCEk eskaintzen duen Urrezko Krisitina saria jasoko du, bihar, urriaren 19a, XVIII Gizarte bateratzaile baten aldeko Krisitina lasterketan. Elkarte, erakunde edo enpresek inklusioaren alde egiten duten lanari aitormena da saria. Basquelands Way eta Mindara elkarteak ere hautagai izan dira aurten.



INTXAURPE ELKARTEA

Bidegabekeria konpontzen

Endika Gartzia herritarrek 2009 urteko Euskadiko Txapelketako garaikurra jaso zuen, urriaren 5ean. Arriarango mendi duatloiko proban izan zen. Era honetara, proba antolatzen duen Intxaurpe elkarteak duela 10 urteko bidegabekeriari irtenbidea eman nahi izan dio: "Orain dela 10 urte Euskadiko Federazioak Endikari Euskal Herriko txapeldunaren txapela lapurtu zion, Nafarroako talde batean lizentzia edukitzeagatik; 10 urte beranduago Arriaranen berreskuratu du, zorretan geundelako".

txintxarri

Adi! Bertan zure zerbitzuak iragartzeko toki aproposa. Egin ezazu erreserba!

TXINTXARRI PUBLIZITATEA: publizitatea@ttakun.eus
Tel: 943 37 14 48 (106) • 646 82 44 66

2 zenbaki berezi kaleratuko ditugu



**urriaren 25ean
eta urriaren 31n**

Intzako bikoteak, maila mantentzeko lehian

Senior mailako bikoteek lehen faseko azken jardunaldiak jokatu dituzte hurrengo bi asteetan. Promozioa saihesten saiaturako dira bi taldeak. Lau eta erdiko promozio txapelketan, berriz, Arteaga II.ak Egiguren V.a garaitu beharko du final-erdietan aritzeko

Txintxarri


Intza pilota elkarteko senior mailako bikoteak lehen faseko azken txanpan sartu dira. Bi partida falta zaizkie eta helburua maila mantentzea da.

Denboraldi hasiera ederra izan zuen Haritz Urkia eta Gaizka Iruretagoienak osatutako 2. mailako bikoteak. Lehen hiru partidak irabazi eta sailkapeneko lehen postuetan zenean, igoera posible ikusten zen. Azken bi partidetan izandako porrotek, ordea, egoera aldatu dute. Lehenengo astean, esate baterako, Añorgaren aurka 22-3 galdu zuten.

Sailkapenean behera egin eta egun, laugarren postuan dira. Promozio postuetan ez egoteko borrokatu beharko du bikoteak azken jardunaldietan. Bihar, Epleren aurka jokatu dute eta bi atsetara Mundarro izango dute aurrez aurre.

Lehen mailako seniorrak gehiago lan egin beharko du maila mantentzeko. Sailkapenean zazpigarren postuan dago. Postu horretan mantendu edo seigarren postura igota ere, promozioa jokatu beharko du.

Lehenengo larunbatean Azkoitiaren aurkako norgehiagokan ez zuen aukerarik izan Artetxe-Elola bikoteak, 12-



Haritz Urkia partida jokatu ari den irudi batean, arxiboko irudi batean. TXINTXARRI

22. Azkoitiarrak nagusi izan ziren hasieratik eta erasoei eustearekin nahiko izan zuen herriko bikoteak.

Gaur, Orioren aurka jokatu dute partida eta azken jardunaldian, Behar Zana izango dute arerio.

Garaipenaren bila

Profesional mailan ere lana izango du Axier Arteaga herritarrek. Lau eta erdiko txapelketan aurrera egiteko Egiguren V.a garaitu beharko du Baiko enpresako aurrelariak. Lehia bizia espero da, biek bana puntu dituzte eta garaipena

eskuratzen duenak lortuko du final-erdietarako txartela.

Igandean, Elordiren aurka jokatu dute partidaren lortu zuen puntu Arteaga II.ak.

Kostata, baina 19-22 gailendu zen. Herriko pilotariak errotmoa ezarri zion partidari. Ziur jokatu zuen eta errematean ez zuen hutsik egin. Lehen atsedenaldira 4 eta 12koarekin iritsi zen.

Elordik, ordea, ez zuen amore eman eta epaileen erabakiak tarteko, tartea txikitu eta berdinketa lortu zuen, 18-18. Azken tantoetan Arteagak aukerak ongi baliatu zituen aurre hartu eta partida irabazteko.



Iraia Iparragirre herritarra, korner batean lehian. REAL SOCIEDAD

Realak, ezin garaipenaren bideari eutsi euskal derbian

Athleticek poltsikoratu ditu hiru puntuak. Giro ederra izan da Reale Arenan; 28.367 zale bildu dira

Txintxarri

Real Sociedad-Athletic derbia beti da partida berezia. Donostiarren eta bilbotarren arteko lehia aspaldikoa da eta zaletuek irrikaz espero dituzte partidak. Bi taldeen zaletuek Reale Arena bete zuten igandean. 28.367 ikusle izan ziren.

Realak ezin izan zuen azken partidetakoa dinamika jarraitu eta Athletic izan zen garaile, 0-2. Gonzalo Arconada entrenatzailearen hitzetan, "ez zen egun onena izan".

Realeko hamaikakoan aldaketa ugari izan ziren. Garrantzitsuenak atean izan zen. Mariasun Quiñones atezaina bere postura bueltatu zen, eskumuturra guztiz osaturik. Alabaina, errotmoa hartu behar duela nabaritu zen partidaren. Iraia Iparragirre herritarra ere hamaikakoan

izan zen eta 80. minutuan Blancok hartu zuen bere lekua.

Derbiaren urduritasunari eta beroari aurre egin behar izan zioten jokalariek. Talde txuri-urdinari partidaren sartzea kosta zitzaion eta hortaz baliatuta, bilbotarren lehen gola iritsi zen.

Realak berdinketaren bila, baloia mugitu zuen hegaletik. Baina zehaztasun gutxi izan zuten ate aurrean jokalaritxuri-urdinek.

Partida amaitzeko minutu bat falta zela, sartu zuen 0-2koa Athleticek.

Punturik ez, beraz, derbian. Sailkapeneko zazpigarren postuan da Reala. Ostiralean Tenerifera bidaiatu eta larunbatean, Granadilla izango du aurrez aurre, La Palmera zelaian. Partida gogorra aurreikusten da.

Lasarte-Oriako inguruak ezagutzeko ibilbideak

Eguraldi ona lagun, herritar ugari parte hartu dute Buruntzaldeko Ibilbideen Egunean

Txintxarri

Ibiltzeko goiz aproposa izan zen igandean, eguraldi atsegina eta Buruntzaldeko XII. Ibilbideen Eguna batu baitziren. 08:00etatik 14:00etara artean Lasarte-Oria zeharkatzen duten hiru ibilbideetako bat egin zutenak, beste urteetan baino gehiago izan ziren.

Ostadar SKT mendi sekzioak eta ipar martxa taldeak proposamen bana egin zieten lasarteoriarrei. Lehenak, herria eta Andoain arteko ia zortzi kilometroak osatzea izan zen, Buruntza igota. Bigarrenak, berriz, Mapil-Aginagara joatea. Elkartegune bera jarri zuten:


Elizatz plaza, 09:00etan. Inguru gozatzera eta ezagutzera animatu zirenek kontrol postuan izen-abizenak eman, eta, nahi izanez gero, ura, platanoa eta zerealekin egindako barraxo bat hartu zuten.

Ordu horretan, San Pedro eliza ondotik irten zirenak 87 lagun izan ziren. Batzuek gorako bidea hartu zuten, besteak Okendo ingurura irten ziren. Ordurako, beste hiru partaide herriko postutik igaroak ziren. Proposatutako horiez gain, hirugarren aukera bat ere bazuten partaideek: Lasarte-Oriatik Urnietara joatea.




Herritarrek Lasarte-Oriaz eta inguruaz gozatzeko aukera izan dute. TXINTXARRI

KOMIKIA




ZORION AGURRAK




Andrea
Zorionak, Andrea! Primerako eguna pasa dezazula! Muxu handi bat familiaren partetik.



Amaia
Zorionak Amaia! Ondo pasa zure zorionak! Urte asko alternatiben partetik! Maite zaitugu!



Kenai
Zorionak Kenai!!! 13 urte lan eta lan, eta aurretik geratzen zaizun guztia! Desio bat emango dizugu amak, Miguelek eta Alexek: zer nahi duzu?




Silvia
Zorionak eta oso ondo pasa bihotza. Milesker munduko amarik onena izateagatik.




Haizea eta Iñaki
Zorionak bikote!!!! Zuen urtebetetzeagatik afari eder bat zuen kontura. Mila muxu familiaren partetik. Maite zaituztegu.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 18




Larunbata, 19




Igandea, 20




Astelehena, 21



Asteartea, 22



Asteazkena, 23



JAIOTAKOAK

Lier Mendez Castro. Urriaren 13an.
Manex Fuertes Sanchez. Urriaren 11n.
Luka Arruabarrena Irizar. Urriaren 9an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 18	GIL	EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
Larunbata, 19	GANDARIAS-URIBE	ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
Igandea, 20	GANDARIAS-URIBE	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
Astelehena, 21	ACHA-ORBEA	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
Asteartea, 22	URBISTONDO	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
Asteazkena, 23	GANDARIAS-URIBE	GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
Osteguna, 24	ORUE	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Castilla-Larburu: Urbietea kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

HILDAKOAK

Diego Molina Habas. Urriaren 14an.
Benito Davila Pinto. Urriaren 11n.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:	LARRIALDIKO TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629	OSASUN ZENTROA: 943 007 960
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184	DYA: 943 464 622
KIROLDEGIA: 943 376 182	GURUTZE GORRIA: 943 363 953
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181	UDALTZAINAK: 943 362 442
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179	ERTZAINAK: 943 538 840
KIUB: 943 361 605	SOS DEIAK: 112
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621	
MUNTERRI AEK: 607 625 233	

GUTUNAK

Etxe goxoa

IULEN LIZASO ALDALUR

Eusko Jaurlaritzak dekretu berri bat osatu du, konpontzeko beti daukaten zailtasuna, gazteentzako eta adinekoentzako etxebizitzaren puzzlearen piezak modulatu eta enkajatu ahal izateko.

Konponbiderik gabeko arazoa da, inbertsioa alokairu sozialera ausardiaz bideratzen ez duten bitartean. Izan ere, ezinbestekoa bezain preziatua den ondasun sozial bat, espekulazio pribaturako objektu bilakatzen dute, pitxiak, akzioak... tratatuko balituzte bezala.

Merkatal perbertsio maila berean, gauza bera egiten dute ondasun publiko handienarekin, urarekin. Klimaren kontrolarekin batera, horiek izango dira XXI. mendeko bi gerrak. Hurrengoa, airearena? Ez dago tarterik egutegian horretarako... eta ez da hatsik geratuko, berri bat egiteko.

Ondo ekipatutako zaharren egoitzak dauzkagu, intimitate falta kenduta; izan ere, logela konpartitu behar dute, geratzen zaien bizitzaren denboraren erdian. Irabazi asmoko merkatal irizpideen arabera privatizatzen ari denez, lan gatazkak eragiten ditu, zerbitzuaren

kalitatean eta prezioetan eragiten dutenak. Eta zaharren egoitzak, eskola eta ospitaleekin batera, ez lirateke sekula negoziokoak izan beharko.

Euskal Autonomia Erkidegoko eta Lasarte-Oriako etxebizitzaren puzzlearen komodina izan litezke, gutxiegi erabilitako etxebizitzak, bakarrik bizi diren adinekoenak, askotan irisgarritasun arazo handiak eta gehiegizko zarata dutenak.

Euskal medioetan oso islada txikia dauka, nahiz eta Europan aurreko mendearen erdialdetik den eraginkorra, eta 2000 urtetik estatuko lurraldeetan. Adineko pertsonen etxebizitza kolaboratibo eta autogestionatuak, zaharren egoitzen alternatiba onena dirudi, sedentarismo apatikoa eta bakardadeko bizitza saihesteko.

Cohousing senior delakoa, zerbitzu komunitarioekin eta 24 orduko erizaintza asistentziarekin, erabilera eskubidearekin gozatzen da (ez alokairua eta ez erosketa); eta Danimarkan sortu zen, 1960an. Hori sustatu eta, era berean, adineko pertsona horien etxebizitzekin hornitze hutsarekin, Eusko Jaurlaritzak aurreztuko luke lurra, sustatuko luke enplegua, eta hobetuko luke alokairu sozialaren eskaintza, familia sortu nahi duten bikote gazteentzat.

ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48

AZOKA TXIKIA

LANA

ESKAINITZA
Pertsona baten bila gabiltza, ebeko lanak eta afaria prestatzeko, astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 21:00etara. 688 667 982.

ESKARIA

Haurrak zainduko nituzke, ikastolara sartu bitartean. 630 682 716.

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Interna edo asteburuetan. 603 296 104.

Pertsona eskaintzen da haurrak zaindu edo pertsona adinduekin egoteko. 638 550 178.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta ebeko lanak egiteko. Interna edo externa bezala. 663 488 438.

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak

zaintzeko. Orduka, jaiegunetan, zein asteburuetan. Ospitalean gauak ere egiteko prest. 606 661 048.

SALEROSKETA

SALDU

HYMER Exsis SG autokarabana ttikia saltzen dut. Lau plaza bidaiatzeko eta lo egiteko. Zerbitzu guztiekin hornitua. 656 760 109.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Inigo Gonzalez,
Maddi Zaldúa eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Iraiti Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzzaileak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde,
Erlantz Ezeiza, Inigo Garcia eta
Jose Lanchas.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA Euskal Jaiak. Euskal giroak Lasarte-Oriako erdigunea hartuko du bihar, larunbata, egun osoan zehar. Adin guztietarako egitaraua antolatu dute. Musika, lehiaketak, kirola, bertsolariak... denetarik izango da. Berrikuntza modura, egun osoan zehar, bertako eta eskuz egindako produktuen azoka izango da. Okendo plazan izango dira ekintza gehienak eta eguraldi txarra eginez gero, Oriarte Institutuko Landaberri eraikineko estalpean egingo da.

Okendo plaza, larunbatean, egun osoa.

Egitaraua:

09:30ean, diana.
11:00etan, Kantudantzajiratikxia.
11:30ean, patatatortillalehiaketa.
12:00etan, bizkotxo lehiaketa.
12:30ean, sagardo dastaketa.
14:00etan, herri bazkaria, Okendo Plaza. Txalapatariak, bazkaloste umoretsua, musika...
Ondoren, haurren pilota jokoa eta haur eta gaztetxoentzako herri kirolak.
17:00etan, harri jasotzea.
18:00etan, Soinuz Blai taldearekin erromeria.
19:30ean, Txaranga, bertso eta pintxo potea. Oaintxe in deu txaranga eta bertsolariekin.
21:30ean, herri afaria.
Gauetan, musika kale eta tabernetan.
00:00etan, Euskal olinpiadak.

OSTIRALA 18

LASARTE-ORIA Erakusketa

Zorione Mendez artistaren *Marrak* erakusketa urriko asteburuetan ikusgai. Ostiralean 17:00etatik 20:00etara; larunbatetan eta igandeetan, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Antonio Mercero Aretoa.

LASARTE-ORIA Erakusketa

Mundu Bat elkarteak Saharako errefuxiatuen kanpamenduetan egindako argazkien erakusketa ikusgai jarri du.

Jalgi Kafe Antzokia, egun osoa.

LARUNBATA 19

LASARTE-ORIA Antzerkia

Etxeke txiekiek *Harezako ametsak* antzerkiak gozatu ahaliko dute. Ytuquepintas taldeak hondarraren artea, marrazketa azkarra, zirkua eta txotxongilo erraldoiak nahasten ditu musika zuzenean duen ikuskizun honetan. Sarrera, 3,80 euro.

Manuel Lekuona, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Kontzertua

Kogoi DJak punky eta reggae party saioa egingo du.

Jalgi Kafe antzokia, 23:00etan.

ANDOAIN Bertsolaritza

Asier Azpiroz Earra Bertso eskolako kidea Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako lehen final-laurdenean izango da buruz buru. Sarrerak salgai daude www.bertsosarrerak.eus webgunean. Aurrez agortzen ez badira, txarteldegian ere eskuratu ahal izango dira, 16:00etatik aurrera.

Bastero Kulturunea, 17:00etan.

ASTIGARRAGA Musika

Astigarragako Eragiyok gizon abesbatzak euskal eragileen eliz-musika eta folklorean oinarritutako emanaldia eskainiko du.

Andre Mari eliza, 19:30ean.

IGANDEA 20

URNIETA Antzerkia

Spasmo Teatro taldeak *Giza gorputzaren erdigunera bidaia* lana eskainiko du. Sarrera, 3 euro.

Sarobe kulturunea, 18:00etan.

ASTEARTEA 22

LASARTE-ORIA Tailerra

Gaur Beltzari buruzko ikastaro-tailerra egingo dute Ttakun Kultur elkarteak eta Zabaleta Auzolanek antolatuta.

Antonio Blas plazako lokala, 19:00etan.

ASTEAZKENA 23

LASARTE-ORIA Ipuin kontaketa

Manuel Lekuona kultur etxeko haur liburutegiak ipuin kontalari saioei hasiera emango die. Kontukantoiako kideek 6 eta 8 urte arteko gaztetxoak milaka istorieotan murgilduko dituzte.

Manuel Lekuona, haur liburutegia, 18:00etan.

OSTIRALA 25

LASARTE-ORIA Tailerra

Gau Beltza gai hartuta Gazte Klubak 9 eta 12 urte arteko gaztetxoentzat mozerro eta aurpegi margotzeko tailer berezia egingo du.

Oriarte Institutua, Landaberri eraikina, 17:30etik 19:30era.

LARUNBATA 26

EIBAR Bertsolaritza

Unai Muñoa Earra Bertso eskolako kidea Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako lehen final-laurdenean izango da buruz buru. Sarrerak salgai daude www.bertsosarrerak.eus webgunean. Aurrez agortzen ez badira, txarteldegian ere eskuratu ahal izango dira, 16:00etatik aurrera.

Coliseo Antzokia, 17:00etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Mascotas 2

Igandea: 17:00.

Una íntima convicción

Igandea: 19:30.

USURBIL

URBIL

Maléfica:

Maestra del mal

Ostirala: 16:30, 18:00, 19:15, 20:45, 22:00, 23:30, 00:45.
Larunbata: 16:30, 18:00, 19:15, 20:45, 22:00, 23:30, 00:45.
Igandea: 16:30, 18:00, 19:15, 20:45, 22:00.

Zombieland:

Mata y remata

Ostirala: 15:45, 19:15, 20:20, 21:45, 00:00.
Larunbata: 15:45, 19:15, 20:20, 21:45, 00:00.
Igandea: 15:45, 19:15, 20:20, 21:45.

Joker

Ostirala: 16:15, 18:00, 19:00, 20:45, 21:30, 23:30.
Larunbata: 16:15, 18:00, 19:00, 20:45, 21:30, 23:30.
Igandea: 16:15, 18:00, 19:00, 20:45, 21:30.

Géminis

Ostirala: 16:15, 18:45, 21:20, 00:00.
Larunbata: 16:15, 18:45, 21:20, 00:00.
Igandea: 16:15, 18:45, 21:20.

Abominable

Ostirala: 15:50, 16:50, 18:10.
Larunbata: 15:50, 16:50, 18:10.
Igandea: 15:50, 16:50, 18:10.

Mientras dure la guerra

Ostirala: 18:00, 20:20, 22:40, 01:00.
Larunbata: 18:00, 20:20, 22:40, 01:00.

Igandea: 18:00, 20:20, 22:40.

A dos metros de ti

Ostirala: 22:30.
Larunbata: 22:30.
Igandea: 22:30.

Dora y la ciudad perdida

Ostirala: 15:45.
Larunbata: 15:45.
Igandea: 15:45.

Mascotas 2

Ostirala: 16:00.
Larunbata: 16:00.
Igandea: 16:00.

Ad Astra

Ostirala: 00:15.
Larunbata: 00:15.

Rambo: Last Blood

Ostirala: 01:00.
Larunbata: 01:00.



LABURPENA

Una íntima convicción

Zuzendaria: Antoine Raimbault. **Gidoilaria:** Isabelle Lazard eta Antoine Raimbault. **Argazkia:** Pierre Cottreau. **Herr:** Frantzia (2018). **Antzezleak:** Marina Foïs, Olivier Gourmet, Laurent Lucas, Philippe Uchan, Jean Benguigui, François Fehner, François Caron, Philippe Dormoy, Jean-Claude Leguay, Steve Tientcheu, Laurent Schilling, Arnaud Pépin. **Iraupena:** 110 minutu.

Errugabetasunean sinesten

Una íntima convicción Antoine Raimbault zuzendariaren lehen film luzea da. Frantziako kritikak eta ikusleek lana goretsi zuten.

Frantzian zeresan handia izan zuen Viguier epaiketaren oinarritua dago filma. Emakume bat desagertu eta bere senar ohia atxilotu eta haren heriotza egotzita bitan epaitu zuten. Bietan geratu zen aske kargurik gabe. Atxiloketak eta epaiketak oihartzun handia izan zuen komunikabideetan eta hori ere islatzen du filmean.

Raimbaultek bigarren epaiketako hitzez-hitzeako pasarteak, egiaztatutako benetako

gertaerak, gizartearen usteak eta berak imaginatutako pasarteak nahasten ditu. Nora filmeko protagonista, esate baterako, asmatutako pertsonaia da.

Norak Viguier errugabe dela uste du. Bigarren epaiketa egingo dela jakitean, zalantza eskubidean sinesten duen abokatu bat konbentzitzen du Viguier epaiketaren horretaz defendatzeko. Biek bidegabekeriaren aurka borrokatuko dute. Abokatuak audio-grabazio batzuk entzuteko eskatzen dio Norari eta egiaren bilaketa obsesio bilakatzen du filmaren protagonistak.

Eka Yoga Studio Lasarte-Oria **Kurtso honetan ez ahaztu zure ongizatea agendaren barruan ipintzea**



Eka Studio

Yoga ordutegi berriak:

Goizean eta eguerdian. (froga dohainik) maila guztietako praktikak. **Baita haurrentzako eta haurdunentzako yoga ere**

Taiji Quan - Qi Gong (Taichi - Chikung):

Ate ireki saioak urriak 26an eta azaroak 30ean goizeko 11:30ean

Elikadura Kontzienteari buruzko doako hitzaldia:

Urriak 25ean arratsaldeko 18:00etan

Izen ematea ezinbestekoa: 672 44 86 44 / 943 37 75 01 | ekalarte@gmail.com | @ekayogastudio

EUSKAL JAIJA'19

URRIAK 19, LASARTE-ORIA



**ZATOZ
BASERRITAR
JANTZIAREKIN!**

9.30 DIANA

11.00 KANTU DANTZA JIRA TXIKIA

11.30 PATATA TORTILLA lehiaketa

12.00 BIZKOTXO lehiaketa

12.30 SAGARDO DASTAKETA

14.00 HERRI BAZKARIA Okendo Plazan.

Txalapartariak, bazkaloste umoretsua, musika...

Ondoren:

- Haurren pilota jokoa.
- Haur eta gaztetxoentzako herri kirolak.

17.00 "HARRI JASOTZEA"

Udane eta Joseba Ostolaza eta Beñat Telleria

18.00 ERROMERIA Soinuz Blai

19.30 TXARANGA BERTSO ETA PINTXO POTEA

Oaintxe in deu txaranga eta bertsolariekin.

21.30 HERRI AFARIA okendo plazan

GAUEAN musika kale eta tabernetan

00.00 EUSKAL OLINPIADAK

11.00-13.30 eta 16.30-19.00 bertako produktuen, eskulanen eta bestelako salgaien AZOKA egongo da Okendo plazan.

* Eguraldi txarra eginez gero ekintza nagusiak Oriarte-Landaberriko estalkian egingo dira

PINTXO POTEA
TIBURTZIO ARTIZAR, TRUMOI, AVENIDA, BUENETXEA, HIRU ALDETA, INTSAUSTI, JALGI, OREKA, YOLANDA, ARKUPE, ILARGI

PARTE HARTZAILEAK:

TTAKUN KULTUR ELKARTEA, GAZTE KLUBA, KUKUKA, ERKETZ, PLAZA DANTZAKO LAGUNAK, XUMELA, TTIRRIKA TTARRAKA, TXISTULARIAK, TXALAPARTARIAK, OSTADAR, INTZA KIROL ELKARTEA, HARRIJASOTZAILEAK, OAINXE IN DEU TXARANGA, BERTSOLARIAK, SORGIN JAIK, AEK EUSKALTEGIA

LAGUNTZAILEAK:

ZABALETA AUZOLAN, JALGUNE, INTZA ELKARTEA, BERASATEGI KAFEAK, OGI BERRI, CECILIA FRUTA-DENDA, ETXEZARRETA HARATEGIA, FRUTAS RUIZ, EROSKI-CITY

